

## **Prix Biltzar remis à Piarres XARRITON en 2006**

Sekulako memoria duelakoz, Piarres Xarriton egiazko monumentu bat da. Gazte gazterik euskal kontzientziaren jabe, bere bizi luzean beti agertu da Euskaldunen eta Euskal Herriaren alde.

Sail askotan – erlijioean, kulturean, ekonomian, sozialean – ideia berriak eman ditu eta haien obratzeko hortzez eta haginez borrokatu da. Adibideak ez dira eskas: Hazparneko kolejio teknikoaren sortzailea, Pariseko Euskal Etxearen bultzatzailea, « Gazte » kazetaren burua, Baionako lehen euskal astearen eragilea (geroago Udako Euskal Unibertsitatea bilakatu dena), Jean Etxepare medikuaren eta Piarres Larzabal apez antzerki idazlearen obrak bildu ditu eta argitaratu. Eta euskaltzain gisa daraman lana ere aipatzekoa da.

Piarres Xarritonek gogoan duena, ahoan ilerik gabe erraten du. Eta beti aitzina begiratuz doa!

Beti badu mila gauza egiteko eta... gudu bat edo bi eramateko !